



Ayuntamiento de IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAko Udala



EGINBIDEA.-
Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramane zituenean udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrengo onakoa sinatu dut.

Langraiz Olan,
2021eko martxoaren 3ean
IDAZKARIA

IRUÑA OKA HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BEHIN-BEHINEKO ONESPEN AGIRIA

INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIAREN I.ERANSKINA

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA 2020ko AZARO

EGINBIDEA.-

Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okeko Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramán zituen udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.



Langraiz Olan,
2021eko martxoaren 25ean
IDAZKARIA



INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIAREN I.ERANSKINA

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

1	TXOSTENAREN HELBURUA ETA KONTSIDERAZIO OROKORRAK	1
1.1	Genero inpaktuaren ebaluaketa	1
1.2	Hurbilketa kontzeptuala eta genero ikuspuntua.....	2
2	IRUÑA OKAKO HAPOAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.	2
3	HAPOAREN GAINEAN AURREIKUSI AHAL DEN BALORAZIOA.	3
4	HAPOAN GENERO BERDINTASUNA INDARTZEKO AGERTZEN DIREN NEURRIAK IDENTIFIKATZEKO EREMUAK.	6
5	DESBERDINTASUNAK DESAGERRARAZIO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK.	10

EGINBIDEA.-
Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko
Plan Orokorren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Strategikoaren
espeditatearen dokumentazioaren zati dela (espeditatearen
hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramán zituen udal
honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen
bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langraiz Okan,
2021eko martxoaren 5ean
IDAZKARIA



EGINBIDEA.-

Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okeko Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramán zituen udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.



Langraiz Olan,
2021eko martxoaren 25ean
IDAZKARIA



GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

1 TXOSTENAREN HELBURUA ETA KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Europar Batasunaren (EB) emakume eta gizonen arteko berdintasun politikaren egungo estrategietariko bat genero mainstreaming bezala ezagutzen da, berrantolaketan, hobekuntzan, garapenean eta prozesu politikoaren ebaluaketan oinarritzen dena, genero berdintasunaren ikuspuntua politika guztien barruan, maila guztietara eta etapa guztietan sartzeko.

Estrategiarekin bat etorriz, agiri hau ekainaren 18ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean eta gidalerroak inpaktua aurretik egindako ebaluaketan oinarritzen da, Gobernu kontseiluak 2012.urteko abuztuaren 21an onartu zituen emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak sustatzeko eta kentzeko. Aldi berean, txostenak 18,19,20 eta 22. Artikuluetan tokiko administrazioei buruzko funtzioak aipatzen ditu: “Arautegiko inpaktuan aurretik egindako ebaluaketa eta generoaren arabera dauden administrazio jarduerak” ezartzeko beharra.

Abiapuntu bezala txostena idazterako orduan Emankunde egindakoa erabili izan da: “Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa”.

1.1 GENERO INPAKTUAREN EBALUAKETA

Generoaren arabera eraginari buruzko txostena dokumentu bat da. Dokumentu horretan, alde batetik, aztertu egiten da arauan jasotako jarduera mesedegarri edo kaltegarri den esku hartu nahi den gizarte-testuinguruan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko; eta bestetik, azterketa horren arabera, arau-proiektuan sartu beharreko neurri zuzentzaileak edo aldaketak jasotzen dira, eragin kaltegarria neutralizatzeko edo, kasuan kasu, eragin mesedegarria indartzeko.

Agiri hau Planaren memorian sartzen da: Iruña Okako Plangintzan genero aldagaiaren barruan gerta daitekeen erasoak aztertzeko, eta ahal den neurrian genero inpaktua murrizteko eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.





1.2 HURBILKETA KONTZEPTUALA ETA GENERO IKUSPUNTUA

“Genero” kontzeptua “sexu” kontzeptua baina urrunago doa; Termino orokorrean (gizon-emakume) sexual kategoria biologikoak dira, generoak bitartean kategoria soziokulturalak dira; lehenengo kategoria determinista eta zorrotza da (jaiotzen da), bigarren kategoria berriz, sozialki eraikita dago, hortaz, aldaketen menpe dago. Generoen eraikuntzan hainbat aldagai eragina daukate: tradizioak, ohiturak eta “maskulino” eta “femeninoa” kontsideratzen dituen sozietatea.

Honela, tradizioz, rol femeninoa emakumeei esleitzen dio familiaren zaintza eta afektuak, etxeko lanak eta espazio publikoaren sarbidea saihestuz, bertan erabaki politikoak eta ekonomikoak ezinbestekoak dira. Gizonak, ordea, espazio publikoa, sozialki ekoizle bakarra eta lan jarduerak eta sozialak garatzen dituenak, eta kontrajartzean berriz, zaintzan eta afektuetan mugak dituzte.

Transmititutako eta barneratutako roletan, belaunaldiz belaunaldi, lanaren banaketa sexuala justifikatu egiten da: ekoizpen-lana/ ugaltze lana.

Aurreko hamarkadako hirigintza hedakorra, ekoizpen lana, ikusgarri eta publikoa estaltzean zentratu zen, bigarren maila batean utziz ekoizpen eremu honen jarduera, maila pribatu batera eramanez.

2 IRUÑA OKAKO HAPOAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.



Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Udalak sustatua dago. Udal mailara hirigintza antolamenduko tresna bat da, udalerrriaren antolamendu osoa islatzen duena eta lurzoruaren sailkapena zehazten duena, barne elementuak definitzen ditu eta bere egitea ezartzen du. Hortaz, udalerrriaren okupazioa arautzen du eta etorkizuneko jarduketak antolatzen ditu garai berrietara egokituz.

Plana Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoarekin batera idazten da, helburua: Planetik garatutako eta ondorioztatutako ingurumen eragina ebaluatzea, udalerrriaren ingurumen ezaugarriari arreta jarritz. Agiri hau Planarekin batera dator bere tramitazioan eta publikoari erakutsiz.

Plangintzaren helburu orokorrak eskaera politikoetara eta sozialetara egokitzen dira; antzinako hirigintza garapenari aurre eginez. Garapen ekonomikoaren sustapenaren oinarrituz, azpiegituren eraikuntzaren bitartez eta jarduera industrialen instalazioak. Hiriko biztanleriaren hazkunde handiagatik premiazko beharrei aurre egiteko, gaur egungo hirigintza arazoak beste batzuk dira: sakabanatutako hazkundera kontrolatu,



baliabide natural urriak kontsumitu kutsadura sortuz; ekoizpen jarduera berrien ezarpena erraztu antzinako ekonomia industrialen antzinako oinarriak ordezkatzu, bizi kalitatea sustatzea, beha sozial berrietara erantzunez, etab.

Azken finean, hirigintzaren helburua jasangarritasun terminoetan aurkezten da, efizientzia ekonomikoki, sozial eta ingurunea kontserbatzearen arteko oreka lortu nahian.

Iruña Okako HAPOak helburu orokor hauek hedatu eta sartu egiten ditu, ondorengo helburuak definituz:

Nortasunaren bilaketa eskualdearen burua aurkitzeko eta bigarren mailako udalerriztatetik lehenengo mailara heltzeko, erakarpen izaerarekin, Araba Erdialdeko lurralde eskemaren barruan egoteko.

Bizi kalitatearen hobekuntza, hiri eszenaren kalitateari lotua, hiri hutsuneak edo lotura gabeko hiri tarteak desagerrarazi beharko ditu, eta eraikitako egituretan oreka eta espazio publikoak eta berdeak, haien artean lotuz eta ekipamenduekin lotuz. Aldi berean, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak sustatu beharko ditu ibilgailuen aurrean aukera bat izateko.

Ingurunearen kontserbazioa Iruña Okako udalerrriaren inguruan, Paisaia moduko natura eta balioak, hobetu eta mantendu beharreko Kultura Ondarea.

Helburu orokorren artean inklusio sozial eta genero ikuspegia kontuan hartzen da.

3 HAPOaren GAINean AURREIKUSI AHAL DEN BALORAZIOA.



Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezartzen dituzten giza-, kultura- eta historia-baldintzak, immigrante eta bertakoen artean, pertsona helduen eta lanean dagoen biztanleriaren artean, etab. hiri espazio eta bizi garen espazio kalitate antolamenduaren diskriminazioaren arduradunak dira.

Diru-sarrerak, arraza, genero eta adina banaketa eta diskriminazio arrazoiak dira, honela adibidez errenta, genero eta immigrazioari lotua dagoena, emakume edota immigranteei pribilegiatuak ez diren eremuetan banatzera behartzen die. Hiria, bazterturiko gizataldeen ikuspuntutik aztertzen badugu, gizakien bizitza baldintzatzen duten espazioak eta espazio horietan egiten diren funtzio anitzak, emaitza izango da dena pertsonen bizi kalitatean eragina daukatela. Ezberdintasun hau espazioarekin zerikusirik daukaten eremu guztietan igartzen da, besteak beste: etxebizitza, hiri espazioen erabilera, zerbitzuak, garraioak, etab.



XIX.mendetik, hirietan, kalean dagoen bizitza profesionala edo publikoa eta etxeetan, etxeko lan edo pribatua oso ondo bereizten da. Hiritarrek, kalean sozietatearekin parte-hartzen dute, produkzio eta parte-hartzearen tokia dela. Etxea edo bizitza pribatua, pertsonen oinarrizko beharrak dauden ingurua da: seme-alabak eduki, elikagaiak sortu, pertsona helduen zaintza, etab.

Azken urteotan ematen ari diren prozesuak publiko eta pribatuaren arteko hesiak lausotzen dituzte, emakumeak lan merkatuan sartu diren bitartean. Hala ere, emakume askorentzako lana eta bizitza pertsonala bateratzea zaila izaten da, eta askoz zailagoa bihurtzen da umeak edo pertsona nagusiak haien menpean daudenean. Zentzu honetan hiriak ez du asko laguntzen, alderantzizkoa esango genuke: kaleetatik mugitzen garenean aurkitzen ditugun oztopoak, garraio publikoaren ordutegiak, zerbitzuetara heltzeko oztopoak, edo hirien nukleotik kanpo sortzen diren merkataritza zentroak merkataritza txikizkaria erosoagoa egiteko, etab.

Hiriak, hiritar independentearen neurritik eginda daude, ibilgailua daukana eta etxetik kanpo lan egiten duena. Beraien diseinua biztanleri gehienek jarduerak eta beharrak kontuan hartu barik eginak daude, hau da, emakumeak, pertsona helduak, umeak, etab. Profil hau betetzen ez dutenak hirian oztopoak eta zailtasunak aurkitzen dituzte. Hiri txarto funtzionatzen badu gizatalde hauentzako okerrago. Eraitza da: mugitzeko eta lan egiteko hiri bat lortu dela eta ez bizitzeko.

Bigarren maila batera baztertu dira “produktiboak” kontsideratzen ez diren pertsonen jarduerak.

Plangintzan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua bezala aztertu eta kontuan izan behar dira ondorengo gaiak:

- **Mugikortasuna:** hiriaren barruan emakumeen ibilbideak laburragoak dira, gizonezkoena berriz, askoz gehiago eta ezberdinak; garraiatzeko modua ere ezberdina da: garraio publikoaren erabilera handiagoa da, oinezkoen ibilbideak, umeekin edo pertsona nagusiekin, erosketekin, etab. Dibertsitate honen ondorioz, emakumeen ikuspuntua hiriari begira askoz handiagoa da, hortaz gizonezkoak baino ikuspuntu gehiago daukate.
- **Irisgarritasuna:** kaleetako oztopoak egoeren arabera dira edo beraien kaleen diseinu txarragatik, adibidez oinezkoentzako oztopoak eta hesiak, hirian zehar poltsa karro edo erosketekin, umeen karroak, mugikortasun gutxiko pertsonak edo gurgil-aulkia, etab... mugitzen diren pertsonak.
- **Segurtasuna:** eraso edo egoera arriskutsu bat izateko arriskuan dagoen edozein pertsona. Hirigintza diseinua ez da arazo honen konponbidea, baina lagundu dezake “segurtasun sentazioa” lortzen. Iluminazio falta, hesiak eta bazterrak, gure kaleak daukaten oztopo garrantzitsuak dira, bereziki oinezkoak kaleetan zehar daudenean.





- **Hiri Bilbean.** estandarretan ratio txarrena daukaten auzoak, zenbait alderdietan eskasia edo defizita, gune libreak, ekipamenduko zuzkidurak, habitat falta edo biztanleri oso altuko dentsitatea, irisgarritasun arazoekin, etab. beraien osasun datuengatik, hilkortasun arrisku maila handiagoa dela eta ghettoak edo kanpotarrez betetzeko tendentzia daukate eta genero diskriminazio handiena dagoen lekuan izan daiteke.

HAPOaren aukeren definizioetan hirigintza jeneroa edo inklusiboa agertzen da, lurraldeen artean antzemandako desorekak konponbideak proposatuz.

Zentsu honetan, plangintzaren berrikusketan hirigintzarekin erlacionatutako arrisku faktoreak konpondu nahi dira. Hiri bilbean egon daitezkeenak eta espazioen “pertzepzioari” edo “ziurtasun sentazioari” eragiten dutenak. Generoaren ikuspuntutik, edo biztanleriaren beste sektoretan eragina dutenak, pertsona nagusiak, umeak, etab. Hurrengoetan eragina daukatenak.

- Espazio publikoaren egoera, erabilera edo falta. Salburua eta Zabalganako auzoetan dauden espazio zabal bereziak. Hiriaren diseinuak pertsona nagusien eta umeen genero ikuspuntua kontutan hartu behar du. Ezpaloi zabalak eta bakarrak, malda edo tunel gaineko edo azpiko bideak, hiri bilbearen bazterrak, arkupe ez komertzialak, ezkututako etxebizitzak atariak, etab. saihestu behar dira.
- Argiztapen eskasa edo falta zuzenean segurtasun eta segurtasunik ezaren pertzepzioan eragiten du. Gainera egoera honi angelu itsu edo bazterrak, ingurunearen edota zaharkitutako hiri espazioen ikustea oztopatzen dute edo degradatutako irudiak segurtasun falta gehitzen du.

Zentsu honetan eta adibide bezala, gaueko ordutegian atarrietara sartzeko ibilgailu pribatuen egiteko aukera ematea bai kaleetatik edo oinezkoen bideetatik, emakumeei berehalako sarbidea emateko.

- Hiriko hutsune handiak, parke handiak bezala adibidez Arriaga parkea edo auzoak eta hiri bilbe edo aparkaleku zelaigune handiak banatzen dituzten bideak bereziki puntu sentikorrek dira eta gauean arazoak sortzen dituzte.

Ezinbesteko bihurtzen da hiri egitura trinko edo jarraitua, ahal den neurrian hesi handiak kenduz (hiri errepideak, burdinbide zatiak, etab.) eta erabili gabeko espazioak kenduz edo gaueko ordutegian (ekipamendu handiak itxi, aparkaleku zelaigune handiak, etab) erabilera aukerak gehituz espazio hauen ordutegiak handitzeko.

Garraio publikoa desoreka edo ezberdintasun elementu garrantzitsua da, orokorrean bai lanerako eta bai aisialdirako erabiltzen den garraio ohikoena delako (emakumeak, pertsona nagusiak, etab.). Bere ibilbidea, hiri eta hiriarteko lerroen loturak, garraio publiko ezberdinen arteko loturak, ordutegi zabalera eta funtzionamendu egokia ezinbestekoak dira.





Ondorioz, hirigintzan landutako ohiko kontzeptuenganako zeharkako irizpideekin aurkitzen gara eta zehazki hirigintza planaren idazketan.

Indartzeko edo barneratzeko gaiak ondo antzeman behar dira, burutzeko jarduketak edo parte hartzeak arrakasta handiaz egiteko, hiritarren parte hartze jarduerak ezinbestekoak dira, eta jadanik hiri ezberdinetan aplikaturiko metodologiak daude.

4 HAPOan GENERO BERDINTASUNA INDARTZEKO AGERTZEN DIREN NEURRIAK IDENTIFIKATZEKO EREMUAK.

HAPOaren berrikusketak hirigintza inklusiboari buruzko irizpideak sartzeko aukera planteatu du, eta ahal den neurrian saihesteko genero inpaktu posibleak.

Laburbilduz, udalerrriaren hautematea hurrengoekin baldintzatuta dago: funtzionamendu sozial eta ekonomikoa, ingurumen eta kultura kalitatea eta emandako zerbitzuak. Hiria, erabileren edo jardueren eta bere espazio publikoen bidez osatuta dago. Hurrengo faktoreen elkarbizitzarekin:

- Familia
- Lana
- Aisialdia

Horregatik, Plan Orokorrari esker, **espazio publikoa** antolatzailearen erreferentzia izan behar da, antolamenduan finkatutako helburuen burutzea erraztuko du.



Hala ere, generoaren ikuspuntua zeharkako forman landu da, mugikortasun gaiak azpimarratuz, hiri nukleo erabileraren eta espazio kualifikazioaren arabera hirigintzari dagokionez



- a) Lurralde eredu trinko eta kohesionatu batez apustu egiten du, ibilbide luzeek eta hiri hutsuneek aldenduz, eraikuntzetan edo kalitatezko espazio libreetan bihurtuz, modu honetan hiri bilbeko arrisku faktoreak modu garrantzitsu batean murriztuz, biztanleak dituzten inguruneak sortuz, erabilera anitzekin eta ordutegi zabalagoekin. Jarduketa eremuen definizioa, bai hiri lurzoruan zein lurzoru urbanizagarrian, espazio libre publikoak eta ekipamenduak diseinatzea posible egiten du, behar sozialei erantzuna emateko, tokiak elkartzeko puntuak eta egonaldi puntuak bihurtzen dituztelako, jarduera kulturalak eta aisialdikoak posible eginez.

EGINBIDEA.-
Jasota gerra dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramane zituenean udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioaren bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langraiz Okan,
2021eko martxoaren 30an
IDAZKARIA



- Langraiz Okako hirigunean finkatugabeko lurzoruaren eremu ezberdinak definitu dira, hiri bilbearen “hutsuneak” betez espazio publikoari balio gehigarri bat ematen diote:
 - AOP-N1 parke lineal bat proposatzen du Kargile parkearekin eta Errotarekin lotzeko, hau da, udalerraren erdiko gunetariko bat, eraikigarritasuna kokatuz plazan dagoen eraikinean. Erabilera tertziarioa eta udalerriko ekipamendu zuzkiduren parte dira eta bloke hauen beheko solairuan aurkitzen ditugu.
Merkataritzaren egokitzapen estrategikoa, erdiko espazio publikoei bizitza emanez, beharrezko kopuruan beharrezko zerbitzuak sortzeko eta hurbileko merkataritza sustatuz. Emakumeak eta pertsona nagusienak kaltetsuenak dira, merkataritza mota hau falta denean oinezkoen distantziak hazten dira eta desplazamendu modu erabileran denez hiri bilbean desorekak eta ezberdintasunak hazten dira, desplazamendu denborak handitzen direlako.
 - AOP-N2 eremuan espazio publikoa osatzen duen plaza bat dago, ekipamendu kulturalako sarbide nagusia batekin, ikusgarria eginez eta irisgarritasun handiagorekin. Merkataritza izaera eta plazaren aisialdia, erabilera tertziarioen ezarpenaren bitartez indartuz agertzen da eraikin berriaren beheko solairu gutzian.
 - AOP-N3 Langraiz Okako erdigunean dago, Langraiz etorbidearen hegoaldean, ur baltsa parke bat dauka Errotaren eta Kargilea inguruan, kalitate paisajistiko handia duen espazio eta mugari nagusienak espazio librea berreskuratzekoan, Langraiz Okako hiri gunean.
 - Martxoak hiru parkeari jarraipena ematen dio, espazio libre hau Kargile parkea eta Errotarekin zein zentro zibikoarekin lotuz, Langraiz Oka oinezkoen eta bizikleten sareei jarraitasuna emanez. Eremu honetan proposatzen den plaza berria ekipamendu honen irisgarritasuna hobetzen dun Langraiz etorbidetik.
 - AOP-N4 Martxoak hiru parkeari jarraitasuna ematen du, espazio libre hau Kargile eta Errotarekin lotuz, eta aldi berean zentro zibikoarekin, honela oinezkoentzako eta bizikletentzako sareei jarraitasuna emanez. Plaza berria ikusten den eremuan planteatzen da eta ekipamenduaren irisgarritasun hobekuntza planteatzen du Langraiz etorbidetik.
- Iruña Okan kontzejuaren hiri garapen berrien bizitegi eremua nukleoaren ipar-ekialdean kokatua dago, aldi beran, iparraldean Langraiz Etorbidearen aukerako bidea bezala bide nagusiaren trafikoa murriztuz eta hiri lurzoru berriaren muga osatuz. Antolamendu Xehatuaren eremuak AOP-N5, zaharkitutako lurzoruak dauzka eta lurzoru urbanizaezineko poltsa bat irla





formarekin denborarekin hiri bilbearen parte izango dena, zaharkitutako espazioa berreskuratuz eta hiri bilbetik kanpo, beste alde batetik eskainiz, kalitatezko hiri espazioa, AOP-N5a AOP-N7aren alboan parke lineal bat jartzen duena, oinezkoen eta bizikleta berrien ardatz nagusienak izango direnak Planak planteatzen duen bezala.

b) Genero ikuspuntutik mugikortasuna beste puntu azpimarragarria da; lanari lotuta dagoen garraio nagusia ibilgailua da. Mugikortasuna erraztea ekoizpen eta zaintza lanak errazten ditu, poligonalak izaten direnak eta konplexutasun handiena hartzen dutenak: laguntza behar duten pertsonak, umeak, jende Nagusia, gaixoa edo gabeziren bat daukatenak. Horregatik ezinbestekoa da oinezkoentzako sareak antolatzea eta bizitegi eremuak lotzen dutenak ziurrak bilatzea, bai udal zerbitzuekin zein espazio libreekin.

- AOP-N5 eta N6 sektoreen garapen berrietan oinezkoentzako eta bizikletentzako aukerako bideak proposatu dira Langraiz Etorbidetik datorren ibilgailuei aurre egiteko, erdiko eskola eta institutua lotzen dutenak.
- Hiri erdigunean dauden hiri lurzoruak oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak proposatzen dituzte espazio librea eta ekipamenduak lotzeko.
- Hainbat ezpaloi eta kaleetan hobekuntzak egin dira, eskala egokiago bat jasoz, irisgarritasuna, ikusgarritasuna eta ondorioz segurtasuna irabaziz. Jarduketan egoera ikusita, Langraizko hirigunea, AOP-N1-ean, Caserna eta Razueta kaleekin eta AOP-N4 Karegile kalean.
- Langraiz Okako bizitegi hazkunde handi baten garapena sustatu da gainontzeko kontzejuekin alderatuz, beste arazoen artean: herri garrantzitsuena izanik zerbitzu gehien dituen delako, ekoizpen lanetan sartuak dauden pertsonen bizi kalitatea erraztuz.

c) Kontzejuetan definitutako eremuak hiri espazioko hobekuntza kalitatean aukerak eskaintzen dituzte. Honela, Billodasen, Kanpai Etxeari espazio librea ematen dion jarduketa planteatu da, kontzejuak eskuragarri duen ekipamendu nagusi baten ingurunea birkalifikatuz. Gainera Billodaseko iparraldean, zentroarekin lotura ez daukan eremua sortzen da, hondakin industrialez osatua eta etorkizunean erabilera mistoen bidez egingo dena, erabilera tertziarioa nagusia da, hala ere, bizitegi erabilerak eta erabilera ekipamentalak dauden. Espazio zaharkituen berreskurapena eta erabileren nahasketa hirigintza generoan mesedegarria, emakumeentzat ingurune seguroak sortuz.

d) Azkenik aipatzea, helburua izan dela hiritartasunak espazio bat izatea generoaren ikuspuntutik ekarpenak elkarbanatzeko, beraz udalerraren kontzeju ezberdinetan auzokideekin izandako batzarretan hiritarrek daukaten arazoei buruzko galdera





zehatza egin da eta bereziki emakumeei, generoaren arazoak deigarriak egiteko, adibidez: puntu arriskutsuak, iluntasun gutxirekin, etab.

Generoaren gaia sartzea hiritarren parte-hartze saioetan helburu bikoitza dauka: planaren berrikusketak konpondu beharreko arazo posibleak ezagunak egitea, hiritarrei hiriaren irudi berriro pentsatzera behartu generoaren ikuspuntutik, ekarpen berriak lortzeko helburuarekin egindako lana aberasteko eta modu berean hiria.

Momenturarte ez dira konpondu beharreko larritasun arazo hauek sumatu, baina bai konpondu beharreko argitasun arazoren bat, zehatz mehatz, Olabarri kontzejuaren sarreran aurkitzen den autobus geltokia.

EGINBIDEA.-
Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Strategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramán zituen udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langraiz Olan,
2021eko martxoaren 5ean
IDAZKARIA





5 DESBERDINTASUNAK DESAGERRARAZIO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK.

Emakundek argitaratutako genero inpaktuen txostena jarraituz, gidalerroen agiri egokitzapena berrikusi egin dugu.

Proiektuaren testuan arau edo neurriak sartu dira...?		Neurriak aipatzen diren artikulua eta bere deskribapena
... genero-ikuspegia barneratu dadin sustatzeko neurriak? Bai/Ez	emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen da	Bai, agiri honen idazketagatik
	emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da printzipio moduan, helburu moduan edo adierazpen nahiz azalpen gisa	Bai, agiri honen idazketagatik
	hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten edo sustatzen da	Bai
	genero-gaiei buruzko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeetan partaidetza sustatzen da	Bai, hiritarren parte-hartzea eta zabaltze hitzaldien bidez.
	Edukia edo onartzeko, baloratzeko edo egikartzeko irizpidea da berdintasuna hautatze-prozesuetan, laguntzak eta hitzarmenak egiteko prozesuetan, prestakuntza-jardueretan, etab.	Ez da egokia.
	Beste batzuk zehaztatu	---
... emakume eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak? Bai/Ez	Hautatze-epaimahaietan	Ez da egokia
	Sariak emateko epaimahaietan	Ez da egokia
	Kontsulta-organoetan	Ez da egokia
	zuzendaritza-organoetan	Ez da egokia
	Beste batzuk, zehaztu	Plan Orokorraren idazketa taldean
Ekintza positiboko	emakumeentzat	Bai. Aurreko ataletan

EGINBIDEA -
Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramanez zituena udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioaren bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langileak Okan,
2021eko martxoaren 30ean
IDAZKARIA





neurriak? Bai/Ez		aipatutakoak.
	Gizonak berdintasunaren alde aplikatzeko	Agirian gai honi buruzko edukia zabaltzearen informazioa hiritarren parte-hartzerako.
	Beste batzuk, zehaztu	----
... Itxuraz neutroak diren neurriak, baina generoaren araberako eragin onuragarria izan dezaketenak? Bai/Ez	Indarkeriaren biktimentzat	Bai, asistentziatzko zentroak ekipamenduen barruan sartzeko aukera posible delako
	Guraso bakarreko familientzat	Bizitegi eskaintzaren zati handia Babes Etxebizitza Publikoari bideratuz
	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat	Bai, eremuak aurreikustean espazio publikoaren kalitatea hobetzeko.
	Beste batzuk zehaztu	-----
... emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak, baldin eta diskriminazio anizkoitza pairatzen baldin badute? Bai/Ez	adinarengatik	Bai, eremuak aurreikustean espazio publikoaren kalitatea hobetzeko.
	errenta mailarengatik	Bizitegi eskaintzaren zati handia Babes Etxebizitza Publikoari bideratuz, kokapenagatik zatiketa soziala saihestuz.
	Sexu-aukerengatik	Ez da egokia
	Desgaitasunak izateagatik	Bizitegi eskaintzaren zati handia Babes Etxebizitza Publikoari bideratuz, kokapenagatik zatiketa soziala saihestuz.
	etnia jakin batekoa izateagatik	Ez da egokia
	Nazio-jatorriagatik	Ez da egokia
	Beste-batzuk zehaztu	-----
... debeku- eta zahapen neurriak? Bai/Ez	Sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik	Ez da egokia
	Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	Ez da egokia
	Beste batzuk zehaztu	-----

EGINBIDEA.-
Jasota gerra dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiriko Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramanez zituena udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langileak Okan,
2021eko martxoaren 30ean
IDAZKARIA





Berdintasunerako helburuen eta neurrien efikazia osatzeko edo handitzeko neurriak, arauaren edo administrazio-egintzaren proiektuaren edukian egin daitezkeenak alde batera utzita...		Deskribapena
<p>.....Berdintasunerako neurrien eta helburuen efikazia osatzera eta haztera zuzendua.</p> <p>Bai/Ez</p>	Hedapena indartzeko ekintzak	Ez da egokia
	Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarduerak	Ez da egokia
	Estatistikak egitea eta azterlan espezifikazioak egitea	Ez da egokia
	Informazio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak	Bai, agiri honen idazketagatik
	Arauak, planak edo programak egokitzea edo prestatzea	Bai, agiri honen idazketagatik
	Berdintasun planak egitea	Ez da egokia
	Egiturak eta zerbitzuak sortzea	Bai, espazio publikoa hobetuz
	Beste batzuk, zehaztu	-----

EGINBIDEA.-
Jasota gera dadin dokumentu hau Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokoraren (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio Strategikoaren espedientearen dokumentazioaren zati dela (espedientearen hasierako eta behin-behineko onarpenak aurrera eramán zituen udal honek, 2019-01-30eko eta 2021-02-10eko osoko bilkuren akordioen bidez, hurrenez hurren), honakoa sinatu dut.

Langraiz Okan,
2021eko martxoaren 25ean
IDAZKARIA

